

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure proiektuari dagokionez, nabarmentzekoa da merkatuan ez dagoela produktu berri honen antzekorik. Ikusi izan dugunez, nobedade handia sortu ahalko du, zientzia honekin badaudelako produktuak, baina ez dute lortu merkatura guztiz zabaltzea. Gainera, gure eskura geratzen denez, ahalik eta pertsona gehiengana iristea nahiko genukeenez, nagusiki erdi-mailako klaseari zuzenduta egongo da, eta ondorioz eskuragarria izango da.



Idea berdinetik abiatuta arrakastarik izan ez duen ekimen baten adibidea

Gure produktuak forma ezberdinak izango ditu eta pertsonalizatzeko aukera izango dute bezeroek, hau da, nahi dituzten zaporeak eros ditzazkete, baita karkasaren kolorea hautatu ere. Horretarako, bezeroek bi gailu eskuratu ahalko dituzte. Alde batetik, buruaren bekaldearekin kontaktuan egongo den eta sentsoare moduan jokatuko duen osagaia, ezinbestekoa izango dena Starring esperientzia izateko, beharrezkoa baita bulkada neurologikoak prozesatu eta eraldatzeko. Forma eta tamaina desberdineko produktuak eskaintzeko intentzioa daukagu, bezeroek diskretuagoa den gailua edo ikusgarriagoa den bat aukera dezaten.

Bigarren gailua, aldiz, oinarria deituriko "tablet" modukoa izango da, zapore-aukeraketa egin eta buruan kontaktuan egongo den gailuak jasotako informazioa prozesatzeaz arduratuko dena. Hala ere, hau ez da ezinbestekoa izango, lehen aipatutako produktua edozein gailu teknologikorekin (mobilak, tabletak...) konektatu ahalko delako Bluetooth bidez.

Ondorioz, produktu honi esker, gure bezeroek esperientzia berri bat bizi ahalko dute, zentzumen-esperientzia guztiz berri ba